

# BERETERRETX PASTORALA

## LEHEN PEREDIKUA

**1**  
Honki jin züer oroer  
Herritarrer eta arrotzer  
Arrastiri hon züer dener  
Pastoralzaile hain fideler

**2**  
Egünko gure süjeta  
Ez zaizezue epikoa  
Eskolan ez beit'ikasten  
Bereterretxen ixtoria

**3**  
Haatik sei menteen ondolik  
Norbaitek ontsa hontürik  
Bereterretxen kantorea  
Herrian beti bizirik

**4**  
Haren bertso ederrekin  
Arrunt gira trajerian  
Ikusiz gure begiez  
Zer zen agitü gau hartan

**5**  
Aitonen semeak auher  
Enganutzen ziren gerlan  
Agaramuntesak alde bat  
Beaumontesak bestaldean

**6**  
Jakintsünen arabera  
Bereterretxen ehailea  
Beaumontesa zen Kontea  
Mauleko Jauregi zaina

**7**  
Bereterretzek haütatürik  
Agaramuntesen aldea  
Haiek hobeki züelakoz  
Artatzen jente ttipia

**8**  
Zer agitü zen xüxenki  
Nork badaki erraiteko  
Memento nahasi haietan  
Agitürik holako franko

**9**  
Bardin Lerin Konteari  
Gostatü zaion Margarita  
Ezpeldoiko etxek'alaba  
Bereterretxen lagün geia

## LEHEN PEREDIKUA

**1**  
Ongi jin, zuei orori,  
herritarrei eta arrotzei.  
Arrastiri on zuei denei,  
pastoralzale hain fidelei.

**2**  
Egungo gure sujeta  
ez zaizezue epikoa,  
eskolan ez baita ikasten  
Bereterretxen istorioa.

**3**  
Haatik sei menderen ondolik,  
norbaitek ontsa ondurik,  
Bereterretxen kantorea  
herrian beti bizirik.

**4**  
Haren bertso ederrekin  
arrunt gara tragedian,  
ikusiz gure begiez  
zer zen agitu gau hartan.

**5**  
Aitoren semeak alfer,  
engainatzen ziren gerlan.  
Agramondarrak alde batean,  
beaumontarrak bestaldean.

**6**  
Jakintsuen arabera,  
Bereterretxen erailea  
beaumontarra zen: kondea,  
Mauleko jauregizaina.

**7**  
Bereterretzek hautaturik  
agramondarren aldea,  
haiek hobeki zutelakoz  
artatzen jende ttipia.

**8**  
Zer agitu zen zuzenki,  
inork badaki, errateko.  
Memento nahasi haietan  
agiturik holako franko.

**9**  
Berdin Lerin kondeari  
gustatu zitzaion Margarita,  
Ezpeldoiko etxeko alaba,  
Bereterretxen lagungaia.

**jin:** etorri

**arrastiri:** arratsalde

**suje:** gai  
**zaizezue:** izango zaizue

**ontsa:** ondo, ongi  
**ondu:** bertsotan jarrita

**arrunt:** berehala, istantean

**agitu:** gertatu, jazo

**engainatu:** erratu, tronpatu

**eraile:** hiltzaile

**artatu:** zaindu  
**ttipi:** txiki

**agitu:** gertatu, jazo

**berdin:** agian, beharbada

**10**

Etzen gero gaitz Jaun baten  
Ogendant ekar araztea  
Larraintar gizon gaztea  
Axuria otsoaren kontra

**11**

Hots Bereterretx Larraintarra  
Jaun horren bortizkerian  
Adinik hoberenean  
Hil zen Ezpeldoi aldean

**12**

Nola beitügü ikusi  
Hala hontü pastorala  
Ez bada xüxen xüxena  
Bizi dadil'alegia

**13**

Ütziko düt perediküa  
Has dadila pastorala  
Egon dadin gogoetan  
Bereterretxen trajeria

**10**

Ez zen, gero, gaitz jaun baten  
ogendant ekarraraztea.  
Larraintar gizon gaztea:  
axuria otsoaren kontra.

**11**

Hots, Bereterretx larraintarra  
jaun horren bortizkerian  
adinik hoberenean  
hil zen Ezpeldoi aldean.

**12**

Nola baitugu ikusi,  
hala ondu pastorala.  
Ez bada ere zuzen-zuzena  
bizi dadila alegia.

**13**

Utziko dut peredikua.  
Has dadila pastorala.  
Egon dadin gogoetan  
Bereterretxen tragedia.

**gaitz:** zail  
**ogendant:** errudun  
**ekarrarazi:** bihurtu

**hots:** alegia, hau da

**alegia:** kondaira

**SATAN GEHIENAK****Su****14**

Ikusten düka nik bezala  
 Hortxe den jenteziona  
 Fite abüisioneari para  
 Lanari oro eskapa

**Ke****15**

Bai eta guretako haitü  
 Üzten hait horien nahastera  
 Banoak haritz baten itzaleala  
 Klüxka baten egitera

**Su****16**

Ago baratx auher ejerra  
 Lan eginareki arrunt prest  
 Nausiak biak igorri gütik  
 Ordüan egon hadi heben eneki

**Ke****17**

Okay okay no problemo  
 Hik gizonak nik emazteak  
 Bena lehenik biak zoin lehent  
 Ahalke ditean Basabürüko dantzariak

**SATAN GEHIENAK****Su****14**

Ikusten duk, nik bezala,  
 hortxe den jendeketa?  
 Fite dibertsioari para,  
 lanari oro eskapa.

**Ke****15**

Bai, eta guretako hautu!  
 Uzten haut horien nahastera.  
 Banoak haritz baten itzalera  
 kuluxka bat egitera.

**Su****16**

Hago, baratxe, alfer eijerra,  
 lan eginarekin arrunt prest!  
 Nagusiak biak igorri gaitik.  
 Orduan, egon hadi hemen enekin.

**Ke****17**

OK, OK, no problemo!  
 Hik gizonak, nik emazteak.  
 Baina lehenik biak zein-lehenka,  
 ahalke daitezen Basabürüko dantzariak.

**gehien:** nagusi**fite:** arin**paratu:** prestatu**hautu:** aukerakoa**baratxe:** astiro**arrunt:** erabat, zeharo**zein-lehenka:** lehian, erronka  
**ahalke(tu):** lotsa(tu)

**1. JELKALDIA**

1438. Erramu eguna. Donejakueko erromesak Larrainen.

**Jakob zaharra****18**

Adiskideak pausa gitean  
Arrastiri bat Herri hontan  
Hol'entzünen dügü meza  
Erramüren ohoretan

**Klovis****19**

Zonbat ürrats aztaletan  
Ta hor'hainbeste aitzinean  
Galiziako izarrak  
Noiz düzkegü lühartzean

**Kunegonde****20**

Egün oroz emekiñi  
Hüillantzen gütük haietarik  
Ez gütükek ez lehenak  
Xenda horietan ebilirik

**Maltako zalduna****21**

Ikusten düzüeia gerla  
Zer tristeziak bazterretan  
Familiak beren artean  
Nahasirik eta herran

**Duka****22**

Heben bi familia handi  
Aspaldian dütüük gerlan  
Üs'agitzen den bezala  
Bestea beti ogendant

**1. JELKALDIA****Jakob zaharra****18**

Adiskideak, pausa gaitzen  
arrastiri bat herri honetan.  
Hola entzunen dugu meza,  
Erramuen ohoretan.

**Klovis****19**

Zenbat urrats aztaletan,  
eta horra hainbeste aitzinean!  
Galiziako izarrak  
noiz dituzkegu lur-ertzean?

**Kunegonde****20**

Egun oroz emekiñi  
hullantzen gaituk haietarik.  
Ez garateke, ez, lehenak  
xenda horietan ibilirik.

**Maltako zalduna****21**

Ikusten duzue gerla?  
Zer tristeziak bazterretan!  
Familiak beren artean  
nahasirik eta herran.

**Duka****22**

Hemen bi familia handi  
aspaldian dituk gerlan.  
Usu agitzen den bezala,  
bestea beti ogendant.

**pausatu:** deskantsatu**arrastiri:** arratsalde**hullandu:** hurbildu**xenda:** bide**herra:** gorroto**usu:** sarritan**agitu:** gertatu, jazo**ogendant:** errudun

**2. JELKALDIA**

Meza ondoa Larrainen

**Zabaleta apaiza****23**

Honki jin herri hontara  
 Erromes adiskideak  
 Ikusirik züen oinak  
 Esprabi zütüe bideak

**Marisantz****24**

Tziauzte orai gur'etxerat  
 Axuria dügü labean  
 Bihar ontsa pixkorturik  
 Kurri ziteen bortüetan

**Duka****25**

Eüskaldünen batzarria  
 Baganakin haitü zela  
 Plazer dükegü züekilan  
 Erramüren gozatzea

**Maltako zalduna****26**

Iruñan erregiñari  
 Salatüko deiogü klarki  
 Hebenko aitonen semeak  
 Zoin diren bortitz züeki

**Laborari anderea****27**

Nahiz ez den ihor xuri  
 Mauleko Jaun kapitaina  
 Denetan den gaixtoena  
 Arrunt oror mehatxüa

**2. JELKALDIA****Zabaleta apaiza****23**

Ongi jin herri honetara,  
 erromes adiskideak.  
 Ikusirik zuen oinak,  
 esprabatu dituzue bideak.

**Marisantz****24**

Zaurte orain gure etxerat.  
 Axuria dugu labean,  
 bihar ontsa bizkorturik  
 korri zaitezten bortuetan.

**Duka****25**

Euskaldunen batzarria  
 bagenekien hautu zela.  
 Plazer dukegu zuekin  
 Erramuen gozatzea.

**Maltako zalduna****26**

Iruñean erreginari  
 salatuko diogu klarki  
 hemengo aitoren semeak  
 zein diren bortitz zuekin.

**Laborari anderea****27**

Nahiz ez den inor zuri,  
 Mauleko jaun kapitaina  
 denetan da gaixtoena.  
 Arrunt orori mehatxüa.

**jin:** etorri**esprabatu:** probatu**zaurte (jaugin):** zatozte**ontsa:** ongi, ondo**korritu:** ibili**bortu:** mendi**batzarri:** abegi**hautu:** ez edonolakoa**klarki:** argiro**arrunt:** berehala, istantean

**1. KANTA**  
**Lou romeiro**

**a1.**

A onde irà meu romero  
Meu romero a onde irà  
Camino de Compostela  
Non sei si ali chegarà

**a2.**

O seus pés cheos de sangue  
Xa non poden meis andar  
Va tocado o pobre vello  
Non sei si ali chegarà

**a3.**

Si agora non teno forzas  
Meu Santiago m'as darà  
Chegaron a Compostela  
E foron a Catedral

**a4.**

Si queres tira'm a vida  
Podes' m a Señor tirar  
Porqué moreréi contento  
N'esta Santa Catedral

**1. KANTA**  
**Lou romeiro**

**a1.**

A onde irà meu romero  
Meu romero a onde irà  
Camino de Compostela  
Non sei si ali chegarà

**a2.**

O seus pés cheos de sangue  
Xa non poden meis andar  
Va tocado o pobre vello  
Non sei si ali chegarà

**a3.**

Si agora non teno forzas  
Meu Santiago m'as darà  
Chegaron a Compostela  
E foron a Catedral

**a4.**

Si queres tira'm a vida  
Podes' m a Señor tirar  
Porqué moreréi contento  
N'esta Santa Catedral

**3. JELKALDIA**

Musde Lerin –jaun kontea– arkulariekin

**Musde Lerin****28**

Orkatz eder hau ehorik  
Goatzen arrunt errearaztera  
Ligiko ostatüetan  
Higa dezagün egüna

**Drakula****29**

Egüna eta gaüa bardin  
Jateko hon ardo berri  
Gero pullarda ejerrer  
Ais'egiteko batzarri

**Musde Lerin****30**

Basabürü hontan gaurgoiti  
Legea ezpataren püntan  
Lotsaraz dezagün jentea  
Nor den nausi asma dezan

**Drakula****31**

Agaramuntek uste dik  
Alte düala Herria  
Bena zer da popülüa  
Uxuuu egin eta ikara

**Musde Lerin****32**

Joanen gitziok ülüntzean  
Oihanalat nardatzera  
Txesta dezan zorrotz denez  
Gure ezpaten mihia

Oro irriz

**3. JELKALDIA****Musde Lerin****28**

Orkatz eder hau erorik,  
goazen arrunt errearaztera,  
Ligiko ostatuetan  
higa dezagun eguna.

**Drakula****29**

Eguna eta gaua berdin.  
Jateko, on ardo berri,  
gero pularda eijerrei  
aise egiteko batzarri.

**Musde Lerin****30**

Basabürü honetan gaurgoitik  
legea ezpataren puntan.  
Lotsaraz dezagun jendea,  
nor den nagusi asma dezan.

**Drakula****31**

Agramontek uste dik  
alde duela herria.  
Baina zer da populua?  
"Uxuuu" egin, eta ikara.

**Musde Lerin****32**

Joanen gataizkiok iluntzean  
oihanerat nardatzera,  
dasta dezan zorrotz denetz  
gure ezpaten mihia.

**ero:** hil  
**arrunt:** berehala, istantean

**higatu:** gastatu**berdin:** agian**batzarri:** abegi**gaurgoitik:** gaurtik aurrera**lotsarazi:** beldurtu

**oihan:** baso  
**nardatu:** gogaitu, nazkatu

**4. JELKALDIA**

Bataila Haunzeko oihanean

**Gexan Agramont****33**

Zer ari hiz hor oihan hontan  
 Ez dük aski hihauenetan  
 Deusere ez dük errespetatzen  
 Bizioa oro aharran

**Musde Lerin****34**

Beti marrakaz hiz Gexan  
 Hi gizon karana ni tzarra  
 Bailakatzen dük popülúa  
 Altxa dadin ene kontra

**Gexan Agramont****35**

Badakik nik bezain ontsa  
 Hoge jakilen aitzinean  
 Onartü dükala bakea  
 Lüküze-ki ber denboran

**Musde Lerin****36**

Ützak Lüküze den leküan  
 Bürüz bürü gütük mementoan  
 Hi bezain züzendün beniz  
 Basabürüko lurretan

Bataila Haunzeko oihanean

**4. JELKALDIA****Gexan Agramont****33**

Zer ari haiz hor, oihan honetan?  
 Ez duk aski hihauenetan?  
 Deus ere ez duk errespetatzen.  
 Bizioa oro aharran.

**Musde Lerin****34**

Beti marrakaz haiz, Gexan!  
 Hi gizon karana, ni tzarra.  
 Balakatzen duk populua,  
 altxa dadin ene kontra.

**Gexan Agramont****35**

Badakik nik bezain ontsa  
 hoge jakileren aitzinean  
 onartu duala bakea  
 Lüküzerekin ber denboran.

**Musde Lerin****36**

Utz ezak Lüküze den lekuan.  
 Buruz buru gaituk mementoan,  
 hi bezain zuzendun bainaiz  
 Basabürüko lurretan.

**oihan:** baso**hihaur:** heu**aharra:** liskar**marraka:** orro, marruma**karan:** eder, atsegin**balakatu:** lausengatu**ontsa:** ondo, ongi**jakile:** lekuko**zuzendun:** eskubidedun**oihan:** baso



**5. JELKALDIA: ASTELEHENA**

Haunzen, Gexan Agramonten etxean

**Gexan Agramont****37**

Debrü Lerin arnegata  
Ohore gabeko gizona  
Eho diküzü etxezain bat  
T'ebatsi haren bohorra

**Andere ingelesa****38**

Gezürra eta mendeküa  
Musde Lerin-en Credoak  
Ezi eman bezain sarri  
Jaten dütü bere hitzak

**Bereterretx****39**

Hamarretan phürü bakea  
Egin düzüe "horiekilan"  
Baia ezpain mütüretik  
Eza gogor sabelean

**Margarita****40**

Musde Gexan Basabürüan  
Jentea etsitzen ari düzü  
Haboroxik alte düütüzü  
Zütan kontatzen dizügü

**Musde Arantzeta****41**

Sinets dezagün bakean  
Ez diralakoz honik gerlak  
Behar ditütüzügü mintz'arazi  
Bi aldeko bürüzagiak

**Bereterretx****42**

Goatzen orai bertan etxerat  
Margarita tziauri eneki  
Oihana ez delakoz segür  
Lagüntzen zütüt bid'erdi

**5. JELKALDIA: ASTELEHENA****Gexan Agramont****37**

Deabru Lerin arnegatua,  
ohore gabeko gizona.  
Ero diguzu etxezain bat,  
eta ebatsi haren behorra.

**Andere ingelesa****38**

Gezurra eta mendekua  
musde Lerinen kredoak,  
ezi eman bezain sarri  
jaten ditu bere hitzak.

**Bereterretx****39**

Hamarretan puru bakea  
egin duzue "horiekin".  
Baia ezpain muturretik,  
eza gogor sabelean.

**Margarita****40**

Musde Gexan, Basabürüan  
jentea etsitzen ari da.  
Haboro alde dituzu,  
zutan kontatzen dugu.

**Musde Arantzeta****41**

Sinets dezagun bakean,  
ez direlakoz onik gerlak.  
Behar ditugu mintzarazi  
bi aldeko buruzagiak.

**Bereterretx****42**

Goazen orain bertan etxerat.  
Margarita, zauri enekin.  
Oihana ez delakoz segur,  
laguntzen zaitut bide erdi.

**ero:** hil, erail  
**ebatsi:** lapurtu

**musde:** jaun, don  
**ezi:** zeren  
**sarri:** laster

**puru:** behintzat  
**hamarretan:** hamar aldiz

**musde:** jaun, don

**haboro:** gehienak

**zauri (jaugin):** zatoz

**6. JELKALDIA**

Margarita eta musde Lerin

**Musde Lerin****43**

Zelüko Jauna zer düt hau  
Izarretarik eroririk  
Zoazte aitzina ni ütirik  
Jinenko beniz ondotik

**44**

Nontik horra zir'ederra  
Eta zer düzü izena  
Zük badakizü nor nizan  
Entzünik arauz ene fama

**Margarita****45**

Nork etzütü ezagützen  
Musde Lerin Jaun Kontea  
Bena badakit Jauneki  
Ez dela haizü elestatzea

**Musde Lerin****46**

Ez bazira ahal mintzatzen  
Kanta dezagün ordüan  
Ikusiz zure begiak  
Trebe zirateke bertsokan

**6. JELKALDIA****Musde Lerin****43**

Zeruko Jauna, zer dut hau,  
izarretarik eroririk?  
Zoazte aitzina, ni utzirik,  
jinen bainaiz ondotik.

**44**

Nondik horra zara, ederra,  
eta zer duzu izena?  
Zük badakizu nor naizen,  
entzunik arauz ene fama.

**Margarita****45**

Nork ez zaitu ezagutzen,  
musde Lerin jaun kondea?  
Baina badakit jaunekin  
ez dela haizu elestatzea.

**Musde Lerin****46**

Ez bazara ahal mintzatzen,  
kanta dezagun, orduan.  
Ikusiz zure begiak,  
trebe zarateke bertsokan.

jin: etorri

horra izan: etorri

arauz: jakina, noski

musde: jaun, don  
haizu: zilegi  
elestatu: hitz egin

**2. KANTA****Ama batek ote sortua zara****b1.**

Ama batek othe sorthia zütü  
 Ederra zirela itxura badüzü  
 Ez da zelietan izarrik agertü  
 Itxura bera diana hartü  
 Ez bortü gorenetan elürrik pausatü  
 Garbitarzün bera dianik hartü

**b2.**

Jauna mintzo zira propheta bezala  
 Üdüri zait badüzüla eskola  
 E'nezazüla beraz sobera flata  
 Juan behar bainiz serora  
 Komentü batetarat bethikoz banua  
 Ikhas ahal dezadan zelüko bidea

**b3.**

Ezta komentietan, ezta bakharrik han  
 Nihur bizi denik oi bere plazeretan  
 Ez ezar бүrian joateko bertan  
 Egon zite egon libertatian  
 Nik phena banikezü ikhus bazintzat han  
 Reia hetan barnen hurtzen nigarretan

**2. KANTA****Ama batek ote sortua zara****b1.**

Ama batek ote sortua zaitu?  
 Ederra zarela itxura baduzu.  
 Ez da zeruetan izarrik agertu,  
 itxura bera duena hartu.  
 Ez bortu gorenetan elurrik pausatu,  
 garbitasun bera duenik hartu.

**b2.**

Jauna, mintzo zara profeta bezala.  
 Iduri zait baduzula eskola.  
 Ez nazazula, beraz, sobera flata,  
 joan behar bainaiz serora.  
 Komentu baterat betikoz banoa,  
 ikasi ahal dezadan zeruko bidea.

**b3.**

Ezta komentuetan, ezta bakarrik han,  
 inor bizi denik, oi, bere plazeretan!  
 Ez ezar buruan joateko bertan.  
 Egon zaitez, egon, libertatean.  
 Nik pena banuke ikus bazintzat han,  
 arreia haietan barnean, urtzen negarretan.

**bortu:** mendi**iduri izan:** iruditu**sobera:** gehiegi**flatatu:** balakatu, lausengatu**bertan:** supituki, bat-batean**arreia:** burdin hesi

**7. JELKALDIA: ASTEARTEA**

Margarita eta Bereterretx

**Margarita****47**

Atzo etxeko hargian  
Hi ütziarik ordüan berean  
Kürütxatü diat Musde Lerin  
Orano beniz ikaran

**48**

Ez nitzok aisa ezkap  
Erranik seroratzeko  
Xedea nükeala balinba  
Bakearen ükeiteko

**Bereterretx****49**

Ez düzü orai zeditüko  
Zütan ezarririk soa  
Beitaki ere ingoitik  
Hauzen aldeko zirela

**50**

Beti heben gainti düzü  
Jenteer mehatsü egiten  
Oldartü behar dizügü  
Ez düa ordaria merexitzen

**51**

Bihar goizean Liginagan  
Gexan-eki gei dizügü  
Armatü hogei bat gizon  
Ikus dezan hor girela pürü

**Margarita****52**

Ikusten bahai erditan  
Kasü emak otoi hiri  
Ehai ützioko bakean  
Zitala beita Jaun hori

**Bereterretx****53**

Margarita ontsa badakit  
Biak girela arrisküan  
Bena behar düguia egon  
Esküak kürütxe etxean

**54**

Berri honez üda hontan  
Ezkontzen ahal gütüketzü  
Badakizü nola nizan  
Aspaldian horren haidürü

**7. JELKALDIA: ASTEARTEA****Margarita****47**

Atzo etxeko hargian,  
hi utziarik orduan berean,  
gurutzatu diat musde Lerin,  
oraino bainaiz ikaran.

**48**

Ez natzaiok aise eskapatu,  
erranik seroratzeko  
xedea nükeela baldinba,  
bakearen ukaiteko.

**Bereterretx****49**

Ez du orain zedituko  
zutan ezarririk soa,  
baitaki ere engoitik  
Hauzeren aldeko zarela.

**50**

Beti hemen gainti da  
jendeei mehatxu egiten.  
Oldartu behar dugu.  
Ez du ordaria merezitzen?

**51**

Bihar goizean Liginagan  
Gexanekin gai dugu  
armatu hogei bat gizon,  
ikus dezan hor girela puru.

**Margarita****52**

Ikusten bahau erdian,  
kasu emak, otoi, hiri.  
Ez hau ützioko bakean,  
zitala baita jaun hori.

**Bereterretx****53**

Margarita, ontsa badakit  
biak garela arriskuan.  
Baina behar dugu egon  
eskuak gurutze etxean?

**54**

Berri onez, uda honetan  
ezkontzen ahal gara.  
Badakizu nola naizen  
aspaldian horren aiduru.

**hargia:** ezkaratz**musde:** jaun, don  
**oraino:** oraindino, oraindik**baldinba:** zalantzarik gabe**zeditu:** amore eman  
**so:** begirada  
**engoitik:** dagoeneko**ordari:** ordain**armatu-gai ukan:**  
armatzekoa(k) izan  
**puru:** behintzat**ontsa:** ondo, ongi**aiduru:** zain

**Margarita**

**55**

Entzün gitzala zelüak  
Denbora nahasi horietan  
Zer date gure geroa  
Beltzdüra bat diat bihotzean

**8. JELKALDIA**

Lamiak Ligiko zubian

**Margarita**

**55**

Entzun gaitzala zeruak  
denbora nahasi horietan.  
Zer dateke gure geroa?  
Belztura bat diat bihotzean.

**8. JELKALDIA**

**9. JELKALDIA: ASTEAZKENA**

Bataila Liginagan

**Gexan****56**

Berriz hortxe gütük bürüz bürü  
 Ez hiz sartüko oihan hontan  
 Aserik nük hire balentriaz  
 Egon hadi pettarrean

**Musde Lerin****57**

Ikusten diat zerbait berri  
 Hortxe hire lagünetan  
 Laborari zonbait bildü dütük  
 Bereterretx haien erditan

**Gexan****58**

Hortan baratzen ahal gütük  
 Gibeltzen bahiz ixtantean  
 Aharra ala bakea  
 Orai hire esküetan

**Musde Lerin****59**

Uste badük züen aitzinean  
 Mauleko Jaun kapitaina  
 Gibeltüko dela lotsaz  
 Txainkü hiz bürütik gaixoa

Bataila

**9. JELKALDIA: ASTEAZKENA****Gexan****56**

Berriz hortxe gaituk buruz buru.  
 Ez haiz sartuko oihan honetan.  
 Aserik nauk hire balentriaz.  
 Egon hadi Pettarrean.

oihan: baso

**Musde Lerin****57**

Ikusten diat zerbait berri,  
 hortxe, hire lagunetan.  
 Laborari zenbait bildu dituk,  
 Bereterretx haien erdian.

**Gexan****58**

Horretan baratzen ahal gaituk  
 gibelatzen bahaiz istantean.  
 Aharra ala bakea,  
 orain hire esküetan.

baratu: gelditu  
 gibelatu: atzera egin  
 aharra: liskar

**Musde Lerin****59**

Uste baduk zuen aitzinean  
 Mauleko jaun kapitaina  
 gibelatuko dela lotsaz,  
 txainku haiz burutik, gaixoa.

gibelatu: atzera egin  
 lotsa: beldur  
 txainku: herren

**10. JELKALDIA**

Lextarreko gortean

**Johan d'Espes****60**

Noiz arte behar düzkegü  
Aitonen semeen gerletan  
Galdü semerik hoberenak  
Eta bizitü hersdüran

**Guilhem Arnaude****61**

Ez bada Basabürüan  
Heben Maule üngürüan  
Egün oroz nigarretan  
Familiak hil herrietan

**Jean de Caxau****62**

Gerla zibila hüillan da  
Etxeak zaizkü hüstüko  
Ez bada jiten bakea  
Züberoa oro galdüko

**Menaud de Barhene****63**

Behatzen zütüet oro  
Entzüten züen oharrak  
Bihar berean San Antonin  
Biltzen dira bi familiak

**Tristan Abbadie****64**

Jada hartzen deizküe oro  
Üztak eta kabaleak  
Behar dütügüa ützi ere  
Jauntto horier gure haurrak

**Jean de Miglos****65**

Nafarroako erregiñak  
Arbasoen tratatüa  
Nahi dü arraberritü  
Ezarri berriz bakea

**Gixarnaute****66**

Noiz date egün eder hura  
Gizonak beren züzenetan  
Bizi anaitarzünean  
Algarren erresetüan

Denek kanta

**10. JELKALDIA****Johan d'Espes****60**

Noiz arte behar dituzkegu  
aitoren semeen gerletan  
galdu semerik hoberenak,  
eta bizi hersturan?

**Guilhem Arnaude****61**

Ez bada Basabürüan,  
hemen, Maule inguruan;  
egun oroz negarretan  
familiak hilerrietan.

**Jean de Caxau****62**

Gerla zibila hullan da.  
Etxeak zaizkigu hustuko.  
Ez bada jiten bakea,  
Zuberoa oro galduko.

**Menaud de Barhène****63**

Behatzen zaituztet oro,  
entzuten zuen oharrak.  
Bihar berean San Antonion  
biltzen dira bi familiak.

**Tristan Abbadie****64**

Jada hartzen dizkigute oro,  
uztak eta kabalak.  
Behar dizkiegu utzi ere  
jauntto horiei gure haurrak?

**Jean de Miglos****65**

Nafarroako erreginak  
arbasoen tratatua  
nahi du arraberritu,  
ezarri berriz bakea.

**Gixarnaute****66**

Noiz dateke egun eder hura,  
gizonak beren zuzenetan  
bizi anaitasunean  
elkarren erresetuan?

hullan: hurbil

jin: etorri

behatu: entzun

kabala: abere, azienda

arraberritu: berritu

zuzen: eskubide

### 3. KANTA

#### Herrian bizitzeko balada

**c1.**  
Gosearen bortxazko  
lür puska ürrünez  
Aments egin ondoan  
lekü eta günez  
Trenak betetzen dira  
ümezürtz ülünez  
Baratzea hertsatzen  
ikusten dügünez  
Galtatzen dereiküe gaur  
auhen ezagünez

**c2.**  
Ekaitzaren kolpeaz  
bürüak plegatzen  
Sükaltetako atepak  
banazka zerratzen  
Asün eta kaparrak  
azkenik hedatzen  
Bakartarzüna zaikü  
soetan lerratzen  
Zühainak ditüztela  
errotik segatzen

**c3.**  
Erran deiküe beti  
behar zela joan  
Ahalaz gazte gazte  
lan adin goxoan  
Herrian bizitzerik  
ez zela gogoan  
Ta baratzen direnak  
sütondo xokoan  
Ttatit egoiten dira  
agurrak ahoan

**c4.**  
Txoriñua bezala  
hoztürrik hezürrek  
Habiak altxatzeko  
biltzean egürrek  
Kanta detzagün kanta  
bortüko elürrek  
Alorretan harriak  
egiak gezürrek  
Bilaiz izanik ere  
gure dira lürrek

### 3. KANTA

#### Herrian bizitzeko balada

**c1.**  
Gosearen bortxazko  
lur puska urrunez  
amets egin ondoan,  
leku eta gunez,  
trenak betetzen dira  
umezurtz ilunez.  
Baratzea hertsatzen  
ikusten dugunetz  
galdetzen digute gaur  
auhen ezagunez.

**c2.**  
Ekaitzaren kolpeaz  
buruak plegatzen,  
sukaldeetako atepak  
banazka zerratzen,  
asun eta kaparrak  
azkenik hedatzen,  
bakartasuna zaigu  
soetan lerratzen,  
zuhainak dituztela  
errotik segatzen.

**c3.**  
Erran digute beti  
behar zela joan  
ahalaz gazte-gazte,  
lan-adin goxoan,  
herrian bizitzerik  
ez zela gogoan.  
Eta baratzen direnak  
sutondo txokoan,  
ttatit egoten dira,  
agurrak ahoan.

**c4.**  
Txoriñoa bezala  
hozturik hezurak,  
habiak altxatzeko  
biltzean egurrak.  
Kanta ditzagun, kanta,  
bortuko elurrak,  
alorretan harriak,  
egiak, gezurrak.  
Biluzi izanik ere,  
gure dira lurrak.

**hertsatu:** estutu

**plegatu:** makurtu

**so:** begirada  
**lerratu:** labaindu  
**zuhain:** zuhaitz  
**segatu:** zerratu, moztu

**baratu:** gelditu

**ttatit:** geldi eta isilik

**bortu:** mendi



## 11. JELKALDIA: OSTEGUNA

San Antonio gainean

### Zuria erregina

67

Bildü gira mendi hontan  
Arbasoen izenean  
Bakearen berritzeko  
Bi familien artean

68

Iruna artino ezagün da  
Zuen herraren oihartzüna  
Erraiten deizüet klarki  
Galdü düzüe adimena

### Apezpikua

69

Behar del'algar maitatü  
Jinkoak deigü erraiten  
Ikas dezagün lehenik  
Gühauren artean süportatzen

### Joan Aragoikoa

70

Bizi zidee aisantzean  
Herria aldiz nekezian  
Etsenplü hon baten partez  
Gaitza dü begien bixtan

### Apezpikua

71

Ez da sekülan berantegi  
Bakearen egiteko  
Ürrikiaren indarrak  
Mündüa dü salbaltüko

Eskuak eman bi partee

## 11. JELKALDIA: OSTEGUNA

### Zuria erregina

67

Bildu gara mendi honetan  
arbasoen izenean,  
bakearen berritzeko  
bi familien artean.

68

Iruñea artio ezagun da  
zuen herraren oihartzuna.  
Erraten dizuet klarki:  
galdu duzue adimena.

### Apezpikua

69

Behar dela elkar maitatu  
Jainkoak digu erraten.  
Ikas dezagun lehenik  
guhauren artean suportatzen.

### Joan Aragoikoa

70

Bizi zarete aise antzean.  
Herria, aldiz, nekezian.  
Etsenplu on baten partez,  
gaitza du begien bistan.

### Apezkupua

71

Ez da sekula beranduegi  
bakearen egiteko.  
Ürrikiaren indarrak  
mundua du salbatuko.

herra: gorroto  
klarki: argiro

**4. KANTA****Agur agramondarrak****d1.**

Agur Agaramontesak  
 Agur ere Beaumontesak  
 Agur San Antoni.

**d2.**

Aidia sano da San Antoni gainian  
 Xapela berriak xuri hegia  
 Jinik girenaz geroz bake egitera  
 Dezagün egüntto bat igan alagera

**d3.**

Ditzagün armak phausa bai eta jar gustian  
 Orok algarrekin jan eta edan  
 Egün danik aitzina libro girateke  
 Trankilik jokatzeko nurk gure aferetan

**4. KANTA****Agur agramondarrak****d1.**

Agur, agramondarrak,  
 agur ere beaumontarrak.  
 Agur, San Antonio.

**d2.**

Airea sano da San Antonio gaineane.  
 Txapel berriak, zuri hegia.  
 Jinik garenez geroz bake egitera,  
 dezagun eguntto bat iragan alagera.

**d3.**

Ditzagun armak pausa, bai eta jar gustuan.  
 Orok elkarrekin jan eta edan.  
 Egundanik aitzina libro garateke,  
 frankilik jokatzeko nork gure aferetan.

jin: etorri

gustuan: gustura

egundanik: gaurdanik  
libro: aske

**12. JELKALDIA**

Mauleko turkandereak

**Trebes****72**

San Antonin ontsa aserik  
Or'adiskide axalez  
Bakea eginen diñe bai  
Egün batez edo biez

**Begiluz****73**

Jin baledi orai bakea  
Gerlarik ez soldadorik ez  
Nola bizi ginate gü  
Soldadorik ez ofiziorik ez

**Gibelka****74**

Goatzen orai Jauregira  
Jauntto horren aholkatzera  
Fite konprenitüko din  
Non den bere interesa

**Gilika****75**

Jokatzen diñat ingoitik  
Lerinek ahatzerik düala  
Gainen eman din hitza  
Mozkorren elea al'haizea

**12. JELKALDIA****Trebes****72**

San Antonion ontsa aserik,  
oro adiskide azalez,  
bakea eginen dinat, bai,  
egun batez edo biz.

**Begiluz****73**

Jin baledi orain bakea,  
gerlarik ez, soldadorik ez.  
Nola bizi ginateke gu,  
soldadorik ez, ofiziorik ez?

**Gibelka****74**

Goazen orain jauregira,  
jauntto horren aholkatzera.  
Fite konprenituko din  
non den bere interesa.

**Gilika****75**

Jokatzen dinat engoitik  
Lerinek ahatzerik duela  
gainean eman duen hitza.  
Mozkorren elea ala haizea.

**ontsa:** ongi, ondo**jin:** etorri**fite:** arin**engoitik:** dagoeneko  
**ahatze:** ahaztu**ele:** hitz, berba

### 13. JELKALDIA

Ostiral santu Larrainen

#### Zabaleta apaiza

**76**

Haurrideak biltzen gira  
Pasioneko ostiralean  
Kürütxearen misterioan  
Kristoren heriotzean

**77**

Kanta dezagün oroek  
Biziaren esperantza  
Ezi gaüaren ondotik  
Jinen beitzaikü argia

### 13. JELKALDIA

#### Zabaleta apaiza

**76**

Haurrideak biltzen gara  
Pasioko ostiralean,  
gurutzearen misterioan,  
Kristoren heriotzean.

**77**

Kanta dezagun orok  
biziaren esperantza,  
ezi gauaren ondotik  
jinen baitzaigu argia.

**haurride:** neba-arrebak

**ezi:** zeren  
**jin:** etorri

## 5. KANTA Vexilla Regis

### e1.

Orai gerlako bandera  
Dü alferitzak ahurrera  
Orai nabaritüz doa  
Kürütxe misterioa  
Zoinetan haragiaren  
Egileak gaitz igaren  
Bait'egonik hedatürik  
Oin esküak itzatürik

### e2.

Agur o zur kürütxea  
Zoinetan beita en'ustea  
Orai pasione denboran  
Jauna dütenak gogoan  
Jüstotarik jüstoago  
Egizkik et'aitzinago  
Gaizkiegiler ützezaek pena  
Gaizki eginez zor dütena

### e3.

Hiri Jinko hirürküna  
Güziek gehien dügüna  
Gogo'rok bide bezala  
Elesari demaiala  
Gü hiharen herioaz  
Kürütxe misterioaz  
Salbatü gütükalakoz  
Xüxen gitzak sekülakoz

## 5. KANTA Vexilla Regis

### e1.

Orain gerlako bandera  
du alferezak ahurrera.  
Orain nabarituz doa  
gurutze misterioa,  
zeinetan haragiaren  
egileak gaitz iragan  
baitu, egonik hedaturik,  
oin-eskuak iltzaturik.

### e2.

Agur, o, zur-gurutzea,  
zeinetan baita ene ustea!  
Orain, Pasio denboran,  
Jauna dutenak gogoan  
justuetarik justuago  
egitzak, eta aitzinago  
gaizkiegileei utz iezaiek pena,  
gaizki eginez zor dutena.

### e3.

Hiri, Jainko hirukuna,  
guziek gehien duguna,  
gogo orok, bide bezala,  
elesari demaiala.  
Gu, hiharen herioaz,  
gurutze misterioaz,  
salbatu gaitualakoz,  
zuzen gaitzak sekulakoz.

ahur: esku

gehien: buruzagi, nagusi  
bide: bidezko, zilegi  
elesari: laudorio, gorespen

**14. JELKALDIA**

Iratiko artzainak

**Pette****78**

Gizonen bihotz gogorak  
Itzatürük Jesus Kristo  
Egün ere eskualdeetan  
Badateke kürütxe franko

**Marti****79**

Ta handi mandiak gostüan  
Trankil handi kontzentzia  
Beren krimak ahatzerik  
Joanen Bazkoen egitera

**Gartxot****80**

Ez da bizia zeditzen  
Gizonen ukaldietan  
Gizentzen deigü bortüa  
Urte oroz tenorean

**Maddia****81**

Laster lürbeltz bortü gora  
Partitzeko tenorea  
Ütziko dügü pettarra  
Guri olako bakea

**Job****82**

Adiskideak behar dügü  
Halere alageratü  
Bedatsearen arnasak  
Bazterrak dereizgü berpiztü

**14. JELKALDIA****Pette****78**

Gizonen bihotz gogorak  
iltzaturik Jesu Kristo,  
egun ere eskualdeetan  
badateke gurutze franko.

**Marti****79**

Eta handi-mandiak gustuan,  
trankil handi kontzientzia.  
Beren krimenak ahazturik,  
joanen Pazkoen egitera.

**Gartxot****80**

Ez da bizia zeditzen  
gizonen ukaldietan.  
Gizentzen digu bortua  
urte oroz tenorean.

**Maddia****81**

Laster lurbeltz bortu gora.  
Partitzeko tenorea.  
Utziko dugu Pettarra.  
Guri, olako bakea.

**Job****82**

Adiskideak, behar dugu,  
halere, alegeratu.  
Bedatsearen arnasak  
bazterrak dizkigu berpiztu.

**gustuan:** gustura**Pazkoak egin:** Pazkokoa egin**zeditu:** amore eman**ukaldi:** kolpe**gizendu:** aberastu, joritu**bortu:** mendi**lurbel(tz):** elur osteko lurra**bortu:** mendi**gora:** garai, altu**ola:** borda, txabola**alegeratu:** alaitu, poztu**bedatse:** udaberri

## 6. KANTA

### Artzainen kanta

#### f1.

Bedatsearen heltzean  
Eki berriaren argian  
Apaintzen gure oihanak  
Bortuak eta baratzeak  
Sasietan xoxoa delarik hasten kantan  
Sapa higitzen zühain idorretan  
Biziaren misterio handia  
Urte oroz amiagarria

#### f2.

Agur Jaun Abondantzia  
Hitza bezala jin zirena  
Negü beltzaren leihotik  
Maizetan zuri pentsatürrik  
Orai bezi ezatzü gerezitzeak sagartzeak  
Alagera maitearen bularrak  
Kanta dezagün xoriek bezala  
Naturari bakoitzak zor deiogüna

#### f3.

Berriz hiretzat artzaina  
Olasarietako bizia  
Zoriona ez beita ezina  
Gaüzaz lo hona balinbada  
Jaun Konteak ez baitaki horren saria  
Gaizto date bere bizi güzia  
Fortunarik ez beita besterik  
Bakoitzak bere libertatea

## 6. KANTA

### Artzainen kanta

#### f1.

Bedatsearen heltzean,  
eki berriaren argian  
apaintzen gure oihanak,  
bortuak eta baratzeak.  
Sasietan zozoa delarik hasten kantan,  
sapa higitzen zühain idorretan,  
biziaren misterio handia  
urte oroz miragarria.

#### f2.

Agur, jaun Abondantzia,  
hitza bezala jin zarena.  
Negu beltzaren leihotik  
maizetan zuri pentsaturik.  
Orain bezi itzazu gerezitzeak, sagartzeak.  
Alegera maitearen bularrak.  
Kanta dezagun, txoriek bezala,  
naturari bakoitzak zor dioguna.

#### f3.

Berriz, hiretzat, artzaina,  
olasarrietako bizia,  
zoriona ez baita ezina  
gauaz lo ona baldin bada.  
Jaun kondeak ez baitaki horren saria,  
gaizto dateke bere bizi guzia,  
fortunarik ez baita besterik  
bakoitzak bere libertatea.

**bedatse:** udaberri  
**eki:** eguzki  
**oihan:** baso  
**bortu:** mendi  
**baratze:** lorategi  
**sapa:** izerdi  
**zühain:** zuhaitz

**abondantzia:** ugaritasuna  
**hitza bezala:** agindu bezala  
**jin:** etorri  
**maizetan:** maiz, sarritan  
**beztitu:** jantzi  
**gerezitze:** gereziondo  
**sagartze:** sagarrondo

**olasarroi:** saroi

## 15. JELKALDIA: LARUNBAT SANTU

Bereterretx eta Margarita

### Bereterretx

83

Zer zoriona Margarita  
Zure hebertxe ikustea  
Zü etxean sartü baiko  
Denentzat alegrantzia

### Margarita

84

Ait'etamen partez badiat  
Arroltz'opil eta ezti  
Bihar bazkoren egitera  
Jin gei beitügü osabareki

### Bereterretx

85

Eta gero algarreki  
Mahaint'eder bat etxean  
Margarita ene izarra  
Kezka güzien aizea

Biek kanta

## 15. JELKALDIA: LARUNBAT SANTU

### Bereterretx

83

Zer zoriona, Margarita,  
zure hementxe ikustea!  
Zu etxean sartu baiko,  
denentzat alegrantzia.

### Margarita

84

Aita eta amen partez badiat  
arrautzopil eta ezti.  
Bihar Pazkoen egitera  
jingai baitugu osabarekin.

### Bereterretx

85

Eta gero elkarrekin  
mahai eder bat etxean.  
Margarita, ene izarra,  
kezka guzien haizea.

baiko: orduko

Pazkoak egin: Pazkokoa egin  
jingai dugu: etortzekoak gara



## 7. KANTA

### Zein eder den arratsean

**g1.**  
Zoin eder den arratsean  
Art'izarraren begia  
Hego aldeti jeikitzen  
Marinelen argia  
Bai egiazki eder dago  
Zelú zolan zohardia  
Zü miletan ederrago  
Ene maite maitea

**g2.**  
Izarrak dira zelüko  
Milaka aingürüen begiak  
Gizonen begiratzeko  
Artzain Honak ezarriak  
Zü bixtarat agertzean  
Histürik beren argia  
Sartzen dira ülünpean  
Ene maite maitea

**g3.**  
Ez dü hain maite izarrak  
Zelüetan eбилtea  
Bedatsean ez erleak  
Baratzeko lilia  
Ez dü hala goiz argiak  
Loriatzen txori ejerra  
Nola ni zü ikusteak  
Ene maite maitea

**g4.**  
Maitea zure kantüala  
Hüillantzea bezain sarri  
Maite zütüt erraitea  
Ez nüzü aisa atrebi  
Ahalke bat bihotzean  
Eleak hor ezpainetan  
Korputza sükar handian  
Ene maite maitea

**g5.**  
Bihar Bazko igantea  
Hartarik landa berehala  
Jondane Johane liliak  
Haiekin gure ezkontza  
Maitea zer zoriona  
Ber kanberan lokartzea  
Ahatzerik mündü hotza  
Ene maite maitea

## 7. KANTA

### Zein eder den arratsean

**g1.**  
Zein eder den arratsean  
Artizarraren begia,  
hegoaldeetik jaikitzen  
marinelen argia.  
Bai, egiazki eder dago  
zeru-zolan zohardia.  
Zu miletan ederrago,  
ene maite-maitea.

**g2.**  
Izarrak dira zeruko  
milaka aingeruen begiak,  
gizonen begiratzeko  
Artzain Onak ezarriak.  
Zu bistarat agertzean  
historik beren argia,  
sartzen dira ilunpean,  
ene maite-maitea.

**g3.**  
Ez du hain maite izarrak  
zeruetan ibiltzea,  
bedatsean ez erleak  
baratzeko lilia,  
ez du hala goiz argiak  
loriatzen txori eijerra,  
nola ni zu ikusteak,  
ene maite-maitea.

**g4.**  
Maitea, zure kantura  
hullantzea bezain sarri,  
maite zaitut erratea  
ez naiz aise atrebi.  
Ahalke bat bihotzean,  
eleak hor ezpainetan,  
gorputza sukar handian,  
ene maite-maitea.

**g5.**  
Bihar Pazko igandea.  
Hartarik landa berehala  
Jondane Joane liliak.  
Haiekin gure ezkontza.  
Maitea, zer zoriona  
ber ganberan lokartzea,  
ahazturik mundu hotza,  
ene maite-maitea!

**zola:** hondo  
**zohardi:** garbi  
**miletan:** mila bider

**begiratu:** zaindu

**histu:** moteldu, zurbildu

**hain / hala A nola B:**  
A bezain B  
**bedatse:** udaberri  
**lili:** lore

**loriatu:** poztu

**kantu:** ondo, alde  
**hullandu:** hurbildu  
**sarri:** laster

**ahalke:** lotsa  
**ele:** hitz

**-tik landa:** -en ostean  
**Jondane Joane:** Donibane  
**lili:** lore

**ganbera:** gela

**16. JELKADIA**

Musde Lerin jaun kondea Bereterretxean

**Musde Lerin****86**

Planta zitee üngürüan  
 Ez dadin ihes gordaxka  
 Bazko mezpera ohoretan  
 Habian dükegü txoria

**Donjon****87**

Eginen deiogü agurra  
 Bazk'egünek'oparia  
 Bat gütiago kokietan  
 Lehian düten ene ezpata

**Drakula****88**

Basabürü hontan sobera  
 Agaramuntesen alte elkirik  
 Lots'arazten badütügü aski  
 Ttatit dizkiagü ondolik

**Menaxote****89**

Hebenko errebeleki  
 Ez dik behar diskütatü  
 Bat zeha eta besteak so  
 Harritürük oro ükürü

**Musde Lerin****90**

Bereterretx aigü bortala  
 Ützüliren hiz berehala  
 Behar diat zerbait erran  
 Beitakit etxen hizala

**16. JELKADIA****Musde Lerin****86**

Planta zaitetzte inguruan,  
 ez dadin ihes gordeka.  
 Pazko bezpera ohoretan  
 habian dukegu txoria.

**Donjon****87**

Eginen diogu agurra,  
 Pazko eguneko oparia.  
 Bat gutiago kokinetan.  
 Lehian dut ene ezpata.

**Drakula****88**

Basabürü honetan sobera  
 agramondarren alde ilkirik.  
 Lotsarazten baditugu aski,  
 ttatit ditiagu ondolik.

**Menaxote****89**

Hemengo errebeldeekin  
 ez dik behar diskutitu.  
 Bat zeha eta besteak so,  
 harriturik oro ekuru.

**Musde Lerin****90**

Bereterretx, haugi bortara!  
 Itzuliko haiz berehala.  
 Behar diat zerbait erran,  
 baitakit etxean haizela.

**plantatu:** jarri  
**ihesi [da]:** ihes egin [du]

**kokin:** barrabas, gaizto

**sobera:** gehiegi  
**ilki:** irten  
**lotsarazi:** beldurtu  
**ttatit:** geldi eta isilik

**zehatu:** zigortu  
**so:** begira  
**ekuru:** geldi, lasai

**haugi (jaugin):** hator  
**borta:** ate

**17. JELKALDIA**

Marisantz, neskatoa eta Bereterretx

**Neskatoa****91**

Dozena bat arma gizon  
 Hortxe dütützü bort'aitzinean  
 Ama sainta zer itsusiak  
 Beren kara gaixtoekin

**Marisantz****92**

Badakit ontsa nor diren  
 Debrü Lerin makal tzarra  
 Errespetatüko düa  
 Neskenegün saintü gaüa

**Bereterretx****93**

Ama indazüt atorra  
 Agian sekülakoa  
 Ezdüzüe axolarik  
 Nik dit ondotik Kontea

**Marisantz****94**

Eskapa hadi sabaietik  
 Gizon horrek dik debrütik  
 Agaramuntesak badakikek  
 Gero zer egin ondotik

**Bereterretx****95**

Ez nizüe lotsaraziko  
 Hartüko dit jin beharra  
 Lekützen baniz ordüan bai  
 Suntsitzen dizü etxea

**17. JELKALDIA****Neskatoa****91**

Dozena bat armagizon,  
 hortxe dituzu borta aitzinean.  
 Ama santua, zer itsusiak!  
 Beren kara gaiztoekin!

**Marisantz****92**

Badakit ontsa nor diren.  
 Deabru Lerin, makaltzarra!  
 Errespetatuko du  
 neskenegun santu gaua?

**Bereterretx****93**

Ama, idazu atorra,  
 agian sekulakoa.  
 Ez duzue axolarik;  
 nik dut ondotik kondea.

**Marisantz****94**

Eskapa hadi sabaitik.  
 Gizon horrek dik deabrutik.  
 Agramondarrak badakikek  
 gero zer egin ondotik.

**Bereterretx****95**

Ez natzaizue lotsaraziko;  
 hartuko dut jin beharra.  
 Lekützen banaiz, orduan bai,  
 suntsitzen du etxea.

**borta:** ate**kara:** itxura**ontsa:** ondo, ongi  
**makal:** itxuragabe, makur**neskenegun:** larunbat**i(n)dazu:** emadazu  
**atorra:** alkandora  
**axola:** kezka**lotsarazi:** beldurtu, ikaratu  
**jin:** etorri  
**lekutu :** urrundu, desagertu

**18. JELKALDIA**

Bereterretx eta musde Lerin jaun kondea

**Musde Lerin****96**

O Bereterretx iratzar hadi  
Ala nihaurk behar düt jin  
Sartzen bagira sükaltean  
Kasü kalte ez dügün egin

**Bereterretx****97**

Hortxe nüzü Musde Lerin  
Zer da zure zerbütüko  
Zer dükezü gütarik plazer  
Ahalaz dügü kunplitüko

**Musde Lerin****98**

Laket nuk Ligin ihizen  
Han beita orein ejerrik  
Bat beste ororen gainetik  
Hire funtsetan laketurik

**99**

Beti ezkapatzen zeitak  
Arin beidütü jauziak  
Joanen gütüük algarreki  
Beidazkik haren pausagiak

**Bereterretx****100**

Lotsa nüzü Jaun Kontea  
Basa dügün kabalea  
Nahi bazünü haren partez  
Ehün basurden gordagia

**101**

Bardin orkatz edo erbi  
Zure balükegü aisa  
Bena orein eme hura  
Jada düzü ihiztekatüa

**Musde Lerin****102**

Behar düta kunprenitü  
Errefusatzen deitakala  
Holako gauza ttipia  
Penazten naik bai egia

**103**

Goatzen ordüan gogoz gainti  
Argiko hara heltzekotan  
Orai dükek tenorea  
Ikusiko düagü nor hizan

**18. JELKALDIA****Musde Lerin****96**

O, Bereterretx, iratzar hadi!  
Ala nihaurk behar dut jin?  
Sartzen bagara sukaldean,  
kasu, kalte ez dugun egin.

**Bereterretx****97**

Hortxe nauzu, Musde Lerin.  
Zer da zure zerbitzuko?  
Zer dukezu gutarik plazer?  
Ahalaz dugu kunplituko.

**Musde Lerin****98**

Laket nauk Ligin ihizian,  
han baita orein eijerrik.  
Bat beste ororen gainetik  
hire funtsetan laketurik.

**99**

Beti eskapatzen zaidak,  
arin baititu jauziak.  
Joanen gaituk elkarrekin,  
baitakizkik haren pausagiak.

**Bereterretx****100**

Beldur naiz, jaun kondea,  
basa dugun kabala.  
Nahi bazenu haren partez  
ehun basurderen gordegia.

**101**

Berdin orkatz edo erbi,  
zuret zat bagenuke aise.  
Baina orein eme hura  
jada duzu ehizatua.

**Musde Lerin****102**

Behar dut konprenitu  
errefusatzen didaala  
holako gauza ttipia?  
Penatzen nauk, bai, egia.

**103**

Goazen, orduan, gogoz gaindi.  
Argituko hara heltzekotan.  
Orain dukek tenorea.  
Ikusiko diagu nor haizen.

**jin:** etorri  
**kasu:** kontuz, adi  
**dugun:** dezagun

**gutarik:** gugandik**laket:** gustura, pozik

**funts:** lur  
**laketu:** atsegin hartu

**pausagia:** pausaleku

**lotsa:** beldur  
**basa:** basati  
**kabala:** abere, azienda  
**gordegia:** gordeleku

**gogoz gaindi:** gogoz kontra

**19. JELKALDIA**

Bereterretxen hiltzea Ezpeldoiko sarreran

**Bereterretx****104**

Badakiat norat ari nizan  
Beidakit ontsa zer hizan  
Bizitürrik xuxenean  
Eznük salgei azkenean

**Musde Lerin****105**

Hortxe dügüla gizona  
Azkenean agertzen dena  
Badakiat aspaldi hontan  
Haunzen bereterra hizala

**Bereterretx****106**

Ez duk min baizik ereiten  
Egozten jente ttipia  
Bena badütük jaunen jaunak  
Laster dükek erortzea

**Musde Lerin****107**

Pfuiii! entzüten düzüeia hori  
Gixontto honen tupeta  
Zer hiz hi ene aitzinean  
Esküetan diat hire bizia

**Bereterretx****108**

Egün badük ahal hori  
Bizia ez beita gurea  
Agian uste beno lehen  
Hik ere dükek tenorea

**19. JELKALDIA****Bereterretx****104**

Bazekiat norat ari naizen,  
baitakit ontsa zer haizen.  
Biziturik zuzenean,  
ez nauk salgai azkenean.

**Musde Lerin****105**

Hortxe dugula gizona,  
azkenean agertzen dena.  
Bazekiat aspaldi honetan  
Haunzeren bereterra haizela.

**Bereterretx****106**

Ez duk min baizik ereiten;  
egozten jende ttipia.  
Baina badituk jaunen jaunak.  
Laster dukek erortzea.

**Musde Lerin****107**

Pfuiii! Entzuten duzue hori?  
Gixontto honen tupeta!!!  
Zer haiz hi ene aitzinean?  
Eskuetan diat hire bizia.

**Bereterretx****108**

Egun baduk ahal hori,  
bizia ez baita gurea.  
Agian uste baino lehen,  
hik ere dukek tenorea.

**ontsa:** ondo, ongi  
**zuzenean:** zuzenki

**bereter:** ordezkari, zerbitzari

**tupeta:** ausarkeria

**8. KANTA****h1.**

O zelüko Jinko Jauna  
Zuri hersatzen nüzü  
Azken oren izigarri huntan  
Argi egin izadazüt

**h2.**

Amodiuaren krüdela  
Zertako naik inganatü  
Ustez maite bat baniala ta  
Haren gatik hil behar düt

**h3.**

Margarita Margarita  
Ez naizia entzüten  
Zure etxonduren aitzinian  
Orai naie ehaiten

**h4.**

Ene ametsa behi züzün  
Zurekilan espusatzia  
Horen phartzez orai nik dizüt  
Hain tristeki hiltzia

**h5.**

Ene korphitzaren aitzinian  
Argitü datekilarik  
Nahi dit belarika zitian  
Bi begiak bustirik

**Donjon****109**

Ixil hadi kokillota  
Aski gütük mesperetxatü  
Goraintzi debrü txarrari  
Ez dük besterik merexitü

Sar Margarita, eta gero, herritarrak.  
Herritarrek Bereterretx eramaten dute  
astoaren gainean.

**8. KANTA****h1.**

O, zeruko Jainko Jauna,  
zuri hersatzen naiz.  
Azken oren izugarri honetan  
argi egin iezadazu.

**h2.**

Amodioaren krudela!  
Zertarako nauk engainatu?  
Ustez maite bat banuela-eta,  
harengatik hil behar dut.

**h3.**

Margarita, Margarita,  
ez nauzu entzuten?  
Zure etxe ondoaren aitzinean  
orain naute eraiten.

**h4.**

Ene ametsa behin zen  
zurekin esposatzea.  
Horren partez orain nik dut  
hain tristeki hiltzea.

**h5.**

Ene gorputzaren aitzinean,  
argitu datekeelarik,  
nahi dut belaunika zaitezen,  
bi begiak bustirik.

**Donjon****109**

Isil hadi, kokillota!  
Aski gaituk mespretxatu.  
Goraintzi deabru txarrari.  
Ez duk besterik merezi.

**hertsatu:** inoren eskuetan utzi

**ero:** hil

**kokillot:** barrabas, gaizto

**20. JELKALDIA: PAZKO EGUNA**

Marisantz eta musde Lerin Maulen

**Gazteluko guarda****110**

Juan Kontea hortxe düzü  
Emazteñi hau ondotik  
Bereterretxen ama dela  
Ez dizü beste elerik

**Musde Lerin****111**

Zer nahi dün emaztea  
Mintza hadi fite fitea  
Apez deiak sonatürik  
Abiatzen beniz mezala

**Marisantz****112**

Eraman düzü gaü hontan  
Bereterretx ene semea  
Kunpreni ezazü Jauna  
Nola nizan arrenküra

**Musde Lerin****113**

Hik bahüana semerik  
Bereterretxez besterik  
Hilik dün Ezpeldoi altean  
Abil eraikan bizirik

Ilki Lerin eta guarda

**20. JELKALDIA: PAZKO EGUNA****Gazteluko guarda****110**

Jaun kondea, hortxe duzu  
emazteñi hau ondotik.  
Bereterretxen ama dela,  
ez du beste elerik.

**Musde Lerin****111**

Zer nahi dun, emaztea?  
Mintza hadi fite-fitea,  
apez deiak sonaturik  
abiatzen bainaiz mezara.

**Marisantz****112**

Eraman duzu gau honetan  
Bereterretx ene semea.  
Konpreni ezazu, jauna,  
nola naizen arrangura.

**Musde Lerin****113**

Hik bahuen semerik,  
Bereterretxez besterik?  
Hilik dun Ezpeldoi aldean.  
Habil, eraikan bizirik.

**fite-fitea:** fite, arin**arrangura:** kexa**eraikan:** eraiki ezan**ilki:** irten

**9. KANTA**  
**Marisantzen lasterra**

**i1.**  
Maule gaztelüan bego  
Ezpeldoitarren ingüma  
Bake oihü aize hego  
Elürrean odol lüma

**i2.**  
Bai Marisantzen lasterrak  
Ürratsa labürtzeraino  
Nahasi dütü bazterrak  
Lakarritik Mauleraino

**i3.**  
Non da non ene semea  
Galtatü dü hats llabürretan  
Eta joan emaztea  
Herioa bihotzean

**9. KANTA**  
**Marisantzen lasterra**

**i1.**  
Maule gazteluan bego  
ezpeldoitarren inguma.  
Bake-oihu, haize hego.  
Elurrean odol-luma.

**i2.**  
Bai, Marisantzen lasterrak  
urratsa laburtzeraino  
nahasi ditu bazterrak,  
Lakarritik Mauleraino.

**i3.**  
«Non da, non, ene semea?»,  
galdetu du hats llaburretan.  
Eta joan emaztea,  
herioa bihotzean.

**inguma:** mamu

**luma:** maluta



**SATAN GEHIENAK****Su****114**

Oritzen hiza zer astea  
 Xuberoa oro sü eta ke  
 Herra ederrak bazterretan  
 Eta zonbat odol ixurtze

**Ke****115**

Bai bena egün kontent  
 Izan diteala Xuberotarrak  
 Ez bagünü Lerin basatü  
 Ez zükean trajeriaren pastarik

**Su****116**

Xuberotarrek atzamanen düe  
 Beti zerbait abüsatzeko  
 Bena gü behar ere hor gütük  
 Gatz amiñi baten barreiatzeko

**Ke****117**

Arren egünko aski lan  
 Dantzañi bat eta parti  
 Hitz hartü diat pullarda bateki  
 Ez beidüt holakorik oraino ikusi

**SATAN GEHIENAK****Su****114**

Oroitzen haiz? Zer astea!  
 Zuberoa oro su eta ke.  
 Herra ederrak bazterretan,  
 eta zenbat odol isurtze!

**Ke****115**

Bai, baina egun kontent  
 izan daitezela zuberotarrak.  
 Ez bagenu Lerin basatu,  
 ez zukeen tragediaren pastarik.

**Su****116**

Zuberotarrek atzemanen dute  
 beti zerbait abusatzeko.  
 Baina gu behar ere hor gaituk,  
 gatz amiñi baten barreiatzeko.

**Ke****117**

Arren, egungoz aski lan.  
 Dantzañi bat eta parti.  
 Hitz hartu diat pularda batekin,  
 ez baitut holakorik oraino ikusi.

**gehien:** nagusi**herra:** gorroto**abusatu:** dibertitu  
**behar(ik) ere:** zorionez**oraino:** oraindino, oraindik

**21. JELKALDIA**

Mauleko turkandereak

**Gizagaitz****118**

Kasü Lerinen izarra  
 Ez denez itzaltzen ari  
 Han tün haidürü pettarean  
 Mila Frantses güdakari

**Txipa****119**

Adio Lerin urde tzarra  
 Ta gora orai Jean de Foix  
 Gizona gizona beita  
 Afera bardin badoa

**Gizagaitz****120**

Lerinen ilusionea  
 Xuberoa alte zükeala  
 Bortizkerian galdüko din  
 Indar gosez ebatsia

**Txipa****121**

Hea goatzen Frantseser bürüz  
 Iku ditzagün haien bürüak  
 Gure biharko adixkideak  
 T'agian etziko etsaiak

**21. JELKALDIA****Gizagaitz****118**

Kasu, Lerinen izarra  
 ez denetz itzaltzen ari.  
 Han ditun aiduru Pettarrean  
 mila frantses gudari.

**Txipa****119**

Adio, Lerin, urdetzarra,  
 eta gora orain Joan Foixkoa,  
 gizon-gizona baita!  
 Afera, berdin, badoa.

**Gizagaitz****120**

Lerinen ilusioa,  
 Zuberoa alde zukeela.  
 Bortizkerian galduko din,  
 indar gosez ebatsia.

**Txipa****121**

Ea, goazen frantsesei buruz,  
 ikus ditzagun haien buruak.  
 Gure biharko adiskideak,  
 eta agian etziko etsaiak.

**kasu:** erne, adi**aiduru:** zain**berdin:** hala ere

**22. JELKALDIA**

Bataila Mauleko gazteluan

**Joan Foixkoa****122**

Aspaldian gogoan nūan  
Espantoen sarraraztera  
Mauleko basurde horri  
Orain jin zitak egūna

**Estrac****123**

Hebenko herritar gūti  
Joanen zitzok lagūntzera  
Fite soil dūkek gaztelūan  
Arrato zahar bat bezala

**Comminges****124**

Hainbeste krima eginik  
Gerla zibila piztūrik  
Dūdatzen diat Zūberoan  
Ixur dadin nigar handirik

**Lautrec****125**

Jakin diat ez dik aspaldi  
Gexan Agaramuntesen ahotik  
Eho zūala motiko bat  
Jeloskeriak pusatūrik

**Lomagne****126**

Hebenko jenteek aspaldian  
Galtatzen dūe bakea  
Bena Lerin-ek betidanik  
Traditū dik hitz emana

Bataila eta hil Lerin jaun kondea

**22. JELKALDIA****Joan Foixkoa****122**

Aspaldian gogoan nuen  
espantuen sarraraztea  
Mauleko basurde horri.  
Orain jin zaidak eguna.

**Estrac****123**

Hemengo herritar guti  
joanen zaizkiok laguntzera.  
Fite soil dukek gazteluan  
arratoi zahar bat bezala.

**Comminges****124**

Hainbeste krimen eginik,  
gerla zibila pizturik,  
dudatzen diat Zuberoan  
isur dadin negar handirik.

**Lautrec****125**

Jakin diat, ez dik aspaldi,  
Gexan Agramonten ahotik,  
ero zuela mutiko bat  
jeloskeriak pusaturik.

**Lomagne****126**

Hemengo jendeek aspaldian  
galdetzen dute bakea,  
baina Lerinek betidanik  
traditu dik hitz emana.

**espantu:** beldur**jin:** etorri**fite:** laster**soil:** bakarrik**ero:** hil**pusatu:** hil**galdetu:** eskatu**traditu:** saldu, traizioa egin

**10. KANTA**

Kristauek kanta

**j1.**

Orai badügu bitoria  
 Gitean erretira  
 Goitü dügu etsaia  
 Kapitain güdükaria  
 Jinkoak eman deikü grazia  
 Dezagün erremestia

**j2.**

Azkenean hola agitzen  
 Tiranoak erorten  
 Jentea beita oldartzen  
 Züzenak behin kausitzen  
 Bortizkeriaren mosko beltzak  
 Galdürük bere hegalak

**10. KANTA****j1.**

Orain badugu garaitza.  
 Gaitezen erretira.  
 Goitu dugu etsaia,  
 kapitain gudularia.  
 Jainkoak eman digu grazia,  
 ditzagun eskerrak eman.

**goitu:** garaitu**j2.**

Azkenean hola agitzen:  
 tiranoak erortzen,  
 jendea baita oldartzen,  
 zuzenak behin kausitzen,  
 bortizkeriaren moko beltzak  
 galdurük bere hegalak.

**agitu:** gertatu, jazo**zuzen:** eskubide  
**kausitu:** lortu

**23. JELKALDIA: UDAN**

Donejakueko erromesek eta herritarrek  
pausatzen dute harrizko oroigarria  
Etxebarren eta bertsoak kantatzen

**Marti****127**

Adixkideak bildü gira  
Heben lekü triste hontan  
Inozent baten odola  
Ixuri den güne bertan

**Maltako zalduna****128**

Ikusirik alagera  
Erramü egünez etxen  
Ihor ez beita ohartzen  
Malürra delarik heltzen

**Margarita****129**

Bereterretx gure nigarrek  
Ez haie ez arrapiztuko  
Ben'izana gatik krima bat  
Ez hizate hil deüserentako

**130**

Lerinek hitarik fite  
Pakatü dik bere krima  
Goiz ala berant mintzo beita  
Jaungoikoaren jüstizia

**Marisantz****131**

Hebentxeko harri honek  
Sala beza mündüari  
Bortizkeriaren izenean  
Zer agitü zeion Bereterretxi

**Olerkari anderea****132**

Kanta ditzagün bertsetak  
Gure lagüna gogoan  
Horien medioz agian  
Egon zaikü memorian

**23. JELKALDIA: UDAN****Marti****127**

Adiskideak bildu gara  
hemen, leku triste honetan,  
inozente baten odola  
isuri den gunerean.

**Maltako zalduna****128**

Ikusirik alegera  
Erramu egunez etxean,  
inor ez baita ohartzen  
malurra delarik heltzen.

**Margarita****129**

Bereterretx, gure negarrek  
ez haute, ez, arrapiztuko.  
Baina izanagatik krimen bat,  
ez haizateke hil deusentako.

**130**

Lerinek hitarik fite  
pagatu dik bere krimena,  
goiz ala berant mintzo baita  
Jaungoikoaren justizia.

**Marisantz****131**

Hementxeko harri honek  
sala biezaio munduari  
bortizkeriaren izenean  
zer agitu zaion Bereterretxi.

**Olerkari anderea****132**

Kanta ditzagun bertsetak  
gure laguna gogoan.  
Horien medioz agian  
egon zaigu memorian.

malur: zorigaitz

arrapiztu: berpiztu

fite: arin

agitu: gertatu, jazo

bertset: bertso

agian: oxala

**11. KANTA****Bereterretxen kantorea****k1.**

Haltzak ez du bihotzik  
Ez gaztanberak ezürrik  
Enian uste erraiten ziela  
Aitunen semek gezürrik

**k2.**

Andozeko ibarra  
Ala ibar lüzia  
Hiruretan ebaki zeitan  
Armarik gabe bihotza

**k3.**

Bereterretchek oheti  
Neskatuari ezteki  
Abil eta so egin ezan  
Gizonik denez ageri

**k4.**

Neskatuak berehala  
Ikhusi zian bezala  
Hiru dozena bazabilzala  
Leiho batetik bestila

**k5.**

Bereterretchek leihoti  
Jaun kunteari goraintzi  
Ehün behi bazereitzola  
Bere zezena ondoti

**k6.**

Jaun kuntiak berehala  
Traidore batek bezala  
Bereterretch aigü borthala  
Ützüliren hiz berehala

**k7.**

Ama indazüt athorra  
Mentüraz sekülakua  
Bizi denak orhit ükhenen  
Du Bazko biharamena

**k8.**

Heltü nintzan Ligira  
Buneta erori lürrila  
Buneta erori lürrila  
Eta eskürik ezin behera

**k9.**

Heltü nintzan Ezpeldoira  
Han haritx bati esteki  
Haritx bati esteki  
Eta bizia zeitan idoki

**11. KANTA****Bereterretxen kantorea****k1.**

Haltzak ez du bihotzik,  
ez gaztanberak hezurrik.  
Ez nuen uste erraten zutela  
aitoren semeek gezurrik.

**k2.**

Andozeko ibarra,  
ala ibar luzea!  
Hirutan ebaki zitzaidan  
armarik gabe bihotza.

**k3.**

Bereterretxek ohetik  
neskatoari ezteki:  
-Habil eta so egin ezan,  
gizonik denetz ageri.

**k4.**

Neskatoak berehala,  
ikusi zuen bezala.  
Hiru dozena bazebiltzala  
leiho batetik bestera.

**k5.**

Bereterretxek leihotik  
jaun kondeari goraintzi.  
Ehun behi bazizkiola,  
bere zezena ondotik.

**k6.**

Jaun kondeak berehala,  
traidore batek bezala:  
-Bereterretx, haugi bortara;  
itzuliko haiz berehala.

**k7.**

Ama idazu atorra,  
menturaz sekulakoa.  
Bizi denak oroit ukanen  
du Pazko biharamuna.

**k8.**

Heldu nintzen Ligira.  
Boneta erori lurrera.  
Boneta erori lurrera,  
eta eskurik ezin behera.

**k9.**

Heldu nintzen Ezpeldoira.  
Han haritz bati estekatu.  
Haritz bati estekatu,  
eta bizia zitzaidan idoki.

**haugi (jaugin):** hator  
**borta:** ate

**i(n)dazu:** emadazu  
**atorra:** alkandora  
**menturaz:** agian, beharbada

**bonet:** txapel

**estekatu:** lotu

**idoki:** atera, kendu

**k10.**  
 Marisantzen lasterra  
 Bostmendietan behera  
 Lakharri Buztanobila  
 Sarthü da bi belhainak herresta

**k11.**  
 Buztanobi gaztea  
 Ene anaie maitea  
 Hitzaz hunik ezpalimbada  
 Ene semia juan da

**k12.**  
 Arreba ago ixilik  
 Ez othoi egin nigarrrik  
 Hire semia bizi balinbada  
 Mentüraz Mauliala da

**k13.**  
 Marisantzen lasterra  
 Jaun khuntiareen borthala  
 Ai ei eta Jauna non düzie  
 Ene seme galanta

**k14.**  
 Hik bahiena semerik  
 Bereterretchez besterik  
 Ezpeldoï altian dük hilik  
 Abil eraikan bizirik

**k15.**  
 Ezpeldoïko jentiak  
 Ala sentimentü gabiak  
 Hila hain hüillan ükhen  
 Eta deusere etzakienak

**k16.**  
 Ezpeldoïko alhaba  
 Margarita deitzen da  
 Bereterretchen odoletik  
 Ahürkaz biltzen ari da

**k17.**  
 Ezpeldoïko bokata  
 Ala bokata ederra  
 Bereterretchen athorratik  
 Hiru dozena ümen da

**k10.**  
 Marisantzen lasterra  
 Bostmendietan behera.  
 Lakharri Buztanobira  
 sartu da, bi belaunak herresta.

**k11.**  
 Buztanobi gaztea,  
 ene anaia maitea:  
 hitaz onik ez baldin bada,  
 ene semea joan da!

**k12.**  
 Arreba, hago isilik,  
 ez, otoi, egin negarrrik!  
 Hire semea bizi baldin bada,  
 menturaz Maulera da.

**k13.**  
 Marisantzen lasterra  
 jaun kondearen bortara.  
 -Ai, ei, eta jauna, non duzue  
 ene seme galanta?

**k14.**  
 Hik bahuan semerik  
 Bereterretxez besterik?  
 Ezpeldoï aldean dun hilik.  
 Habil, eraikan bizirik.

**k15.**  
 Ezpeldoïko jendeak,  
 ala sentimendu gabeak!  
 Hila hain hullan ukan,  
 eta deus ere ez zekitenak.

**k16.**  
 Ezpeldoïko alaba  
 Margarita deitzen da.  
 Bereterretxen odoletik  
 ahurkaz biltzen ari da.

**k17.**  
 Ezpeldoïko bokata,  
 ala bokata ederra!  
 Bereterretxen atorratik  
 hiru dozena omen da.

**herresta:** narras, tatarrez

**menturaz:** agian, beharbada

**borta:** ate

**eraikan:** eraiki ezan

**hulan:** hurbil

**ahurkaz:** esku beteka

**bokata:** garbitzeko arropa

**atorra:** alkandora

**AZKEN PEREDIKUA****133**

Hona beraz adiskideak  
 Ürrontzen dela pastorala  
 Jokatü dügü bihotzez  
 Bereterretxen trajeria

**134**

Ezi amiragarria  
 Hainbeste urteren bürüan  
 Kantore bat gogoetan  
 Bizirik Eüskal Herrian

**135**

Gaixo Bereterretx tritea  
 Ez hizatek'ez lehena  
 Handi mandien gütizian  
 Ogen gabeko bitima

**136**

Haatik nor haboro galtzeetan  
 Kriminela al'inozenta  
 Honek galdürik bizia  
 Besteak aldiz arima

**137**

Nah'izan dügü erakutsi  
 Bortizkeriaren saria  
 Gizonen jaidüra beltza  
 Atzo egün den bezala

**138**

Ber denboran ere ustea  
 Amodioaren indarra  
 Ezi herioa beno  
 Handiago beita bizia

**139**

Esker hoberenak egiazki  
 So'gile maitagarriak  
 Züer medioz baitüke  
 Biharamen jokü xaharrak

**140**

Aurten Andozeko ibarran  
 Apaintü zaizkü herriak  
 Pastoralaren oldarrak  
 Iharrausirik bihotzak

**141**

Ikus arte adixkideak  
 Zoazte sosegü handian  
 Drago ba edan ondoan  
 Kasü egin üngürüagietan

**AZKEN PEREDIKUA****133**

Hona, beraz, adiskideak,  
 urrentzen dela pastorala.  
 Jokatu dugu bihotzez  
 Bereterretxen tragedia.

**134**

Ezi miragarria  
 hainbeste urteren buruan  
 kantore bat gogoetan  
 bizirik Euskal Herrian.

**135**

Gaixo Bereterretx tritea,  
 ez haizateke, ez, lehena  
 handi-mandien gutizian  
 hoben gabeko biktima.

**136**

Haatik, nor haboro galtzeetan,  
 kriminala ala inozentea?  
 Honek galdurik bizia;  
 besteak, aldiz, arima.

**137**

Nahi izan dugu erakutsi  
 bortizkeriaren saria.  
 Gizonen jaidura beltza,  
 atzo, egun den bezala.

**138**

Ber denboran ere ustea  
 amodioaren indarra.  
 Ezi herioa baino,  
 handiagoa baita bizia.

**139**

Esker hoberenak egiazki,  
 so egile maitagarriak.  
 Zuei medioz baituke  
 biharamun joko zaharrak.

**140**

Aurten Andozeko ibarrean  
 apaindu zaizkigu herriak,  
 pastoralaren oldarrak  
 inarrosirik bihotzak.

**141**

Ikusi arte, adiskideak!  
 Zoazte sosegu handian.  
 Trago bat edan ondoan,  
 kasu egin ingurumarietan.

**urrendu:** bukatu, amaitu**ezi:** zeren**hoben:** erru, falta**haatik:** hala ere  
**haboro:** gehiago  
**galtze:** galera**jaidura:** joera**uste:** konfiantza**ezi:** zeren**inarrosi:** astindu



**142**

Gora gure Euskal Herria  
Bizi dadila bakean  
Hartan irus Züberoa  
Arbasoen ametsetan

**142**

Gora gure Euskal Herria,  
bizi dadila bakean!  
Hartan uros Züberoa  
arbasoen ametsetan.

**uros: zoriontsu**

## 12. KANTA

### Andozeko ibarrean

**I1.**  
Heltzen delarik Bazko bere tenorean  
Harpe zilo barnetan iraztorra berdeetan  
Arroka ixiletan erreka gordeetan  
Irrintzin bat jaikitzen da gauaren erdian

**I2.**  
Herrian baratü zaikü oihartzün ozena  
Herraren altarean odolaren saria  
Maitasünaren botza Ezpeldoiko hargian  
Bereterretx hire auhena herritarren gogoan

**I3.**  
Euskaldünak nahi dü izan libro etxean  
Arbasoen lürretan besteen errespetüan  
Damürik mentez mente ebilirik galtzeetan  
Atzo egün den bezala arranoen menpean

**I4.**  
Jauna begira ezazü heben dügün bizia  
Azkena galdü gabe Euskaldün jentea  
Bere mintzajeareki Herri bat zabala  
Bereterretxen odoletik beikira gü ere  
Andozeko ibarran

## 12. KANTA

### Andozeko ibarrean

**I1.**  
Heltzen delarik Pazko bere tenorean,  
harpe-zilo barnetan, iraztor berdeetan,  
arroka isiletan, erreka gordeetan,  
irrintzi bat jaikitzen da gauaren erdian.

**I2.**  
Herrian baratu zaigu oihartzun ozena.  
Herraren aldarean odolaren saria.  
Maitasunaren boza Ezpeldoiko hargian.  
Bereterretx, hire auhena herritarren  
gogoan.

**I3.**  
Euskaldunak nahi du izan libro etxean,  
arbasoen lurretan, besteen errespetuan.  
Damurik, mendez mende ibilirik galtzeetan,  
atzo, egun den bezala, arranoen menpean.

**I4.**  
Jauna, begira ezazu hemen dugun bizia,  
azkena galdu gabe euskaldun jendea.  
Bere mintzairarekin herri bat zabala,  
Bereterretxen odoletik baikara gu ere  
Andozeko ibarrean.

**harpe-zilo:** haitzulo  
**iraztor:** iratze-sail

**baratu:** gelditu  
**herra:** gorroto  
**hargia:** harrera-leku

**libro:** libre

**damurik:** zoritzarrez, tamalez  
**galtze:** galera